

"ALTXA BURUA GIPUZKOA SAREA OSATU DUGU, TEKNOLOGIAREN ERABILERA EGOKIA BULTZATZEKO"

Udarregi ikastolako 20 bat guraso batu dira egitasmo honetara / **14-15**

ARGAZKIA: NOAUA

NOAUA

'Janela' erakusketak Ibai Arrieta argazkilariaren zigilua darama / 08



NOAUA

Jon Maiak 'Kantu berri bat gara' kontzertua eskainiko du Dema plazan / 10-11

NOAUA

Aginagako Eskola Txikian ongi etorri beroa egin zioten Olinpiar Jokoei / 17

NOAUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 15.000 izokin askatu ditu Urumean eta Orian / 20

CEPA Lasarte
HHI Helduen eskola

Matrikula epea

Ekainaren 17tik 27ra eta irailaren 2tik 13ra

- **Hezkuntza orokorra** (Irakurketa, idazketa, oinarrizko ingelesa, nutrizio osasuntsua, Historia...)
- **DBHko titulua**
- **Oinarrizko euskara**
- **Gaztelania atzerritarrentzat**
- **Irteera didaktikoak**

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43)

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

G15 USURBIL

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

5. URTEURRENA!

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIK!

SALEROSKETA & ALOKAIRUAK

Zugandik **GERTU** behar duzun **GUZTIRAKO**

688 739 733 info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

BISITA GIDATU BERRIAK USURBILEN

650 USURBIL bizi — Usurbil Turismoa

IZEN-EMATEA

650usurbilbizi.eus

MUSEO IREKIA

Usurbilgo kaleetan dauden artelan garaikideak azaltzen dira. Tradizioa eta modernitatea uztartzen dira ibilbide honetan, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu, Irantzu Lekue, eta abarren piezen bitartez.

ZAINTZA

Usurbilgo zaintza ekosistemaren bi gune gertutik ezagutzeko aukera: Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa, eta Egurtzegi, zaintzadun etxebizitzen auzunea.

ZERO ZABOR

Usurbilgo hondakinen kudeaketa eredugarria ezagutzeko aukera: atez ateko bilketa, auzo-konpostagailuak eta errefusa tratatzeko modu berritzaileak.

SALBATORE ELIZAREN ONDAREA

Elizaren historia eta bere kultur ondarea ezagutzeko bisita, besteak beste, organo eta erloju entzutetsuak. Kanpandorrera ere igoko da bisita gidatua. Adi: ez da bisita irisgarria.

Udako aisialdi ekimenak martxan dira

Uztailaren 30era arte luzatuko da Udajolas, 4 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei eskainitako zerbitzua. Ziortzako gazteak aldiz, hiru txandatan izango dira Peñaloscintoseko kanpaldian.

Argazkian, Udajolaseko aurtengo begirale-taldea.

Usurbilgo jaiak amaitu eta hurrengo egunetan ekin zitzaien Usurbilen antolaturiko udako aisialdi ekimenei. Festa hauen biharamunean abiarazi zuen NOAUA! Kultur Elkarteak hilaren 30era arte luzatuko den Udajolas. 4-12 urte arteko 212 haur eta gaztetxoek parte hartuko dute ekimen horretan, albiste honi atxikitako argazkian dituzuen 39 begiraleko lan taldearen gidaritzapean. Eguneroko dinamiken artean, ostegunero egingo dituzten txangoak.

Ziortzako kanpaldiak ere martxan dira

Udajolas abiatu eta biharamunean heldu zen DBHko lehen taldea Ziortzak Errioxako Peñaloscintosen antolaturiko udako kanpaldira. Hiru txandatan parte hartuko dute gazteok aisialdi ekimen honetan:

- Uztailak 4-13ko astean: DBH 3-4.
- Uztailak 13-20ko astean: DBH 2.
- Uztailak 20-27ko astean: DBH 1.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Uztailaren 11tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 18an garbigune hau Kalezarrera eramango dute.

1950. urtean jaio zirenei deia

Datorren urtean 75 urte beteko dituzten herrikideak biltzeko asmoa dute. Parte hartu nahiko luketen guztiekin hartuemanetan jarri nahi dute. Horregatik, bi telefono zenbakiotara deitzeko gonbita egin diete 1950ean jaiotakoei: 645 736 726 / 678 398 852.

Laster helduko da jai-giroa Zubietara

Inguruotako jaien denboraldia hasi baino ez da egin. Ospakizun giroa laster helduko da Zubietara uztaila amaieran, segidan abuztu hasieran Urdaiagara eta hilabete horren amaieran Atxegaldera. Datorren asteko aldizkarian xehetasun gehiago eskainiko ditugu.

Maialen Lujanbioren saioa Aginagako Eliza Zaharrean

Maialen Lujanbiok *rr6-erre(AH) ala* saioa eskainiko du uztailaren 18an Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak 6 eurotan eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA! ko bazkideek 4 eurotan, baina sarrera NOAUA!ren egoitzan eskuratu beharko dute.

noaua
TOKIKOM

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea, Bordaberri 3, Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil, 943 360 321, elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua: Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaileak: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia

Usurbilgo Udala

IRITZIA

LUIS ARANALDE

Hariak

Duela gutxi berri pozgarri bat irakurri nuen. Europako nazio talde batek Gipuzkoako 'Hariak' sarea aukeratu du erreferente bezala nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko erabili dituen baliabideengatik. Europako elkarte horretan bost herrialdek kolaboratzen dute: Danimarka, Austria, Irlanda, Belgika eta Portugal. Bost Herrialde horien artean 'Korale' sarea sortu zuten eta Gipuzkoako Hariak erakunde horretan integratuta dago. Beren eta hemengo ordezkari nagusiak ekainaren 19,20 eta 21ean elkartu ziren Donostian. Gipuzkoa aitzindari deklaratu dute, nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko elkarte hain egokiak eratzeagatik.

Gipuzkoan 55 urtetik gorakoen artean bostetik bat bakardadean sentitzen da, baina ehuneko bostek bakarrik aitortzen du garbi (honek adierazten du ze estigma dagoen errealitate honen inguruan) eta 16tik 19ra arte lautik bat. Gaurko gizartearen erronka nagusienetako bat da nola borrokatu nahi ez den bakardadearen aurka. Askok "epidemia" deitu diote egoera latz horri eta errealitate hau "gelditzeko etorri da", kronikoa bihurtu da. Fenomeno hori, adituen esanetan, gazteen artean ere gehitzen doa. Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Adinberri erakundeek "hariak" estrategia duela bi urte jarri zuten martxan.

"Gipuzkoako 'Hariak' sarea erreferente izendatu dute Europan".

Programa edo proiektu honen helburua da gure lurraldeko pertsona guztiek eskura izatea pertsonak, egiturak, jarduerak, laguntzak eta tresnak bakardade egoerak prebenitzeko, horiei aurre egin eta laguntzeko. Lotura sozial eta afektiboak izatea. Horretarako, adituen ustez, funtsezkoa da administrazio publikoen, gizarte erakundeen, enpresen eta beste eragile askoren kolaborazioa. Estrategia horren gune nagusia adinekoak eta zahartze prozesuak dira. Gipuzkoako gizarte osoari zuzenduta dago, belaunaldien arteko elkartasuna oinarrizkoa baita.

"55 URTETIK GORAKOEN ARTEAN BOSTETIK BAT BAKARDADEAN SENTITZEN DA"

Hariak Gipuzkoa osorako estrategia komun baten eraikuntza da, hainbat erakunde eta eragilerekin lankidetzan. Halaber, azken bi urteetan erakunde publikoekin eta gizarte antolatu osoarekin egindako parte-hartze prozesu zabal eta bizi baten emaitza da.

Nazioarteko arduradunekin egin zuten batzar nagusi horretan parte hartu zutenen artean Eider Mendoza zegoen eta "autokonplazentzian ez genuela erori behar, baizik denon artean soluzio bat ematen saiatu behar genuela", zioen. Gurutz Linazasoro neurologoak bere aldetik "proiektu global batean gaude; arazo honi irtenbide bat ematea gizarte osoaren lana da". Gautenako Joakin Fuentesentzat inportantzia handia du desiratu gabeko bakardadeak duen estigma ezabatu eta gauza hauez garbi hitz egiten saiatzeak. Josu Elberdin musikariak musikaren garrantzia nabarmentzen zuen: "Oso polita da gazteek eta helduek koro batean kantatzea, hariak ehotzeko leku aproposa baita".

Federico Garcia Lorcak honela definitzen zuen desiratu gabeko bakardadea: Bidelagun higuingarria ("compañera detestable"). Asanblada nagusi horretan bildutako ororentzat, nahi gabeko bakardadearen kontrako antidotorik onena ondo kohesionatutako gizarte bat eraikitzea da.

Askotariko bisita gidatuak uda honetan

Uztailak 18, osteguna
10:00-11:00 Zero Zabor bisita udaletxetik abiatuta.

Uztailak 20, larunbata
• 12:00-13:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua organo erakustaldiarekin.
• Oharra: taldea osatuta.

Uztailak 21, igandea
• 11:00-13:30 Museo Irekia eta Chillida Leku museora bisita.

Uztailak 24, asteazkena
• 10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Uztailak 27, larunbata
• 12:00-13:00 Museo Irekia bisita gidatua.

Abuztuak 11, igandea
• 18:00-19:00 Museo Irekia bisita gidatua.
• 20:00 Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertua Salbatore Elizan.

Abuztuak 17, larunbata
• 12:00-13:00 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua.

Irailak 1, igandea
• 12:00-13:00 Museo Irekia bisita gidatua.

Irailak 14, larunbata
• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua.

Informazio gehiago eta izen-emateak:
650usurbilbizi.eus

Ekainaren 27ko udalbatzaren osoko bilkura. Bozketetako bi, Palestinari lotutako bi mozio onartzeko izan ziren.

Palestinari lotutako bi mozio onartu zituen udalbatzak

Palestinarren aurkako genozidioaren harira, bi mozio aurkeztu eta onartu zituen udalbatzak ekainaren 27ko osoko bilkuran.

Bi mozioetako bat bilgune baten eskutik heldu zen. Izan ere, Euskal Herriko mugimendu sozial hainbat barnebiltzen dituen Palestinarekiko Erantzukizuna plataforma udalez udal mozioak aurkezten ari da. Usurbilgora iragan ekainaren 27ko osoko bilkuran heldu zen. Udalari egiten dion eskaeraren testuingurua sakon azaltzearekin batera, honakoa galdegiten zuen mozioak; batetik, biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespetua. Bestetik, "Palestinan berehalako su-etena eskatzea, eta Gobernuari eskatzea Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartu eta emango zaiela ziurtatzea, betiere langile humanitarioen babesa bermatuz". Testuak "okupazio koloniala eta apartheid-a direla gatazkaren egiturazko arrazoiak" onartzea galdegiten du, baita "Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea behin betiko su-etena izan arte, Palestinako herriaren giza eskubideak bermatu arte eta Israelek Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte".

Harremanen etetea

Eusko Jaurlaritzari zuzentzen zaio testua adierazteko "Espainiako Gobernuari exiji diezaiotela Estatuko esparru juridikoan ezarritako betebeharrak bete ditzala eta Israeli norabide biko bahitura militarra ezar diezaiola, bai eta Israelekin lankidetza militarreko eta segurtasuneko programa guztiak bertan behera utz ditzala ere, Palestinako herriaren eskubideak errespetatu arte". Horrekin batera, "Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari Gazako Zerrendaren aurkako bonbardaketak eta setioa gelditzeko

"PALESTINAN BEREHALAKO SU-ETENA", ESKAERETAKO BAT

behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela", Israelgo Gobernuarekin "harreman diplomatiko guztiak har ditzatela" galdegiteaz gain.

"Su-eten osoa"

EHBilduren gehiengo osoarekin onartu zen. EAJk eta PSEk aurka bozkatu zuten. Izan ere, bi alderdiok testu alternatiboa, "Ekialde Hurbileko indarkeria egoerari buruzko mozioa" aurkeztu zuten osoko bilkura berean. Bertan irizten diote, "Israelgo Estatua biztanleria zibilaren aurka egiten ari den eraso bereizi gabeak eta kolektiboak ez dituela inongo gertakarik justifikatzen, ezta Hamasek iragan urriaren 7an Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindako eraso terrorista gordinak". Horren harira, "su-eten osoa eta mugagabea, Gazako eremuan oinarrizko horniduren blokeoa etetea, herritarrek euren lurraldera itzultzea eta Zisjordaniako palestinarren aurkako erasoak amaitzea" galdegiten dute. Horrekin batera, Israelgo Estatuari arbitrarioki atxilotutako presoak eta Hamasi "bahitu guztiak" berehala askatzea galdegiten die testu honek. Estatuei eta nazioarteko erakundeei Palestina estatu gisa aitortzea eta "atsedenik gabe jardun dezaten eskualdean bake egonkorra eta iraunkorra lortzeko". Israelgo estatuari "Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpenak bete ditzan". Laguntza humanitarioa "etengabe eta murrizketarik gabe sartzen uztea" eskatzen du. Europar Batasunaren Bake Integralerako Plana babesten du. Testua EAJ eta PSE-ren aldeko botoekin onartu zen, EHBildu abstenitu egin zen.

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA
· MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Haur Eskolako erabiltzaileen araudiko alegazioak erantzun eta behin betiko onartu zuten ekainaren 27ko osoko bilkuran.

Haur Eskolari lotutako bi erabaki

Haur Eskola hizpide izan zuten udal ordezkariek ekainaren 27ko osoko bilkuran. Batetik, zerbitzu hau Udarregi ikastolak kudeatzen segitzea erabaki zuten. Bestetik, erabiltzaileek dituzten eskubide eta betebeharrak zehazten dituen araudiari behin betiko onespena eman zioten.

Apirilaren 11n eginiko ezohiko osoko bilkuran haur eskolari lotutako bi erabaki hartu zituen udalbatzak. Batetik, haren zerbitzu kontratua hiru urtez esleitzeko prozedurari ekitea onartu zuen. Horrekin batera, haur eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharrak zehazten dituen arautegia onartzea erabaki zuen baita. Udalak hartutako azken erabakia, apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak kaleratu zuen. Biharamunetik, apirilaren 25etik aurrera, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epealdia finkatu zuen Udalak.

Zazpi alegazio

Tarte horretan, zazpi alegazio aurkeztu ziren. Haiek banan-bana bozkatu zituen udalbatzak ekainaren 27an eginiko osoko bilkuran, aipatu arautegia behin betiko onartu aurretik. Onartu zituzten alegazioen artean, berez eskaintzen den arren, arautegi berrian irteera ordua zehazteko eskaera dago, horrek "erabiltzaileei onura ekarriko dio" eta, "ordutegi zabalagoa eskaintzen delako". Ordu laurdeneko irteera ordua finkatzen da, goizez, 10:45-11:00 artean 0-1 eta 1-2 urte artekoentzat, 11:45-12:00 artean, 2-3 urtekoentzat. Ordutegiari lotutako beste alegazio bat ere aurkeztu zen; eguerdiko sarrera ordutegia moldatzea, "haurren jasoketa mailakatua ahalbidetzeko". Hala, 12:30etan finkatzea galdegiten da sarrera ordu hau 0-1 eta 1-2 urte artekoentzat, 11:45-12:00 artean, 2-3 urte artekoentzat. Horrekin batera, arratsaldeko irteera ordua ere moldatzea eskatu da beste alegazioetako batean arrazoi berberagatik. Ondorioz, "arratsaldeko irteera ordua zabaltzea (15:30-16:00 artean) eta haur eskolako haurrei askaria ez eskaintzea" eskatu da, baina alegazio hau ez zen onartu. Izan ere haur eskolako zerbitzua askaria barne dela eskaintzen da.

Adin ezberdinetako haurrak multzokatzeko eskaera

"ZAZPI ALEGAZIO AURKEZTU ZIREN. HAIEK BANAN-BANA BOZKATU ZITUEN UDALBATZAK"

Zenbait zehaztapen egitea ere galdegiten da alegazioak aurkezteko epealdi horretan. Batetik, otorduen ordutegian 2-3 urtekoei zuzenduriko zehaztapenak txertatzea, askaririk ez dela eskainiko erantsita. Lehen, aipatu moduan, ordea, askaria zerbitzuaren barne dagoenez, alegazio hau ez zen onartu.

Seigarren alegazioa, haur kopuruari eta ratioei lotutakoa zen. Kasu horretan, honakoa eskatzen zen; "eskolan ez badago ratioa betetzeko haur nahikorik, adin ezberdineko haurrak gela berean multzokatzeko baimena lortu ahalko dela arautzea". Alegazio hau onartu zuten, baita zazpigarrena eta azkenekoa ere; haur eskolan erreserbaturiko plaza gehienez 8 hilabetez gordetzea, "itxaron zerrenda egongo balitz, plaza bat ikasturte erdia baino gehiago erabili gabe egotea ekiditeko".

Bozketa

Hartutako erabaki guztiok (alegazioei erantzutea eta ordenantza bera betiko onartzea) gehiengo osoz onartu ziren EHBilduren eta PSE-ren aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. Jeltzaleen bozeramaile Xabier Otxoak adierazi zuenez, "puntu askorekin bat gatoz, baina ehuneko ehunean doakoa izango den haur eskola publikoa defendatzen dugu".

Araudiak dioena

Usurbilgo Udalak behin betiko onarturiko haur eskolako erabiltzaileen eskubideei eta betebeharrei buruzko arautegiak, besteak beste, hezitzailearekin izan beharreko eguneroko harremanak finkatzen ditu, zerbitzu honen ordutegi egutegia, egokitzapen prozesuaren nondik norakoak, gurasoek etxetik eraman beharreko gauzak, osasunari buruzko araudia, isiltasunaren buruzko xehetasunak, haur kopurua eta ratioak zeintzuk diren, matrikulazioa, itxaron

→ zerrenda eta bajei buruzko argibideak. Azkenik, prezioaren zenbatekoa eta gobernantza eredua ere arautzen du.

Esleipena Udarregiri

Haur eskolako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen araudia onartu zuen udalbatzak hasieraz iragan apirilaren 11ko osoko bilkuran. Saio berean, zerbitzu hau datozen hiru urteotarako esleitzeko prozedurari ekitea ontzat eman zuen gehiengo osoz. Ordutik gai honek egin duen ibilbidearen ispilu izan da pasa den ekainaren 27ko osoko bilkuran udal ordezkariek hartutako erabakia. Izan ere, erabiltzaileen arautegia behin betiko onartzeaz gain, haur eskolaren zerbitzua Udarregiri esleitzea erabaki zuten gehiengo osoz (EHBildu eta PSE alde. EAJ abstenitu zen).

Eskaera bakarra

Eskaerak aurkezteko Udalak finkaturiko epealdiaren baitan, eskabide bakarra aurkeztu dela berri eman zuten udal gobernu taldetik hilaren 27ko saioan; Udarregi ikastolakoena. Eskaerak baldintza guztiak betetzen ditu eta gehiengo osoz onarturiko proposamena argia zen beraz; hurrengo hiru urteotarako haur eskola Udarregi ikastolari esleitzea eta "2024ko aurrekontuan 180.943,33 euroko gastua xedatzea kontratu hau burutzeko".

Kontratu berriak berrikuntzak izango ditu. Izan ere, egungoa emakida kontratu bat da. Etorkizunekoa, zerbitzu kontratu bat izango da. Zerbitzu honen kudeaketak dakartzan arriskuak administrazioak, kasu honetan Udalak hartuko ditu bere gain, ez lizitatzaileak. Hiru urterako, 2,2 milioi eurora arteko bolumen ekonomikoa izan dezakeen kontratua da honakoa, Udalak egina duen azterlan ekonomikotik ondorioztatu ahal duenez. Kontratu berriak 2021ean onartu, sinatu eta abiarazitakoa ordezkatuko du.

Haur Eskolako kuotak murrizteko 2024ko ordenantza fiskalak egokitu ditu Udalak.

Ordenantza fiskalen behin betiko onarpena

Behin betiko onartu ditu Usurbilgo Udalak 2024ko ordenantza fiskalen baitako aldaketak. Besteak beste, haur eskolako erabiltzaileei lotutako araudian kuotak nabarmen murriztea onartu dute. Izan ere, dakizuenez, Eusko Jaurlaritzak ikasturte honi begira, Partzuergoko haur eskolak doakoak izango zirela iragarri zuen, baina erabaki horretatik kanpo utzi zituen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal titulartasuneko hamahiru haur eskola, tartean, Usurbilgoa. Ziurgabetzat jotzen zuen testuinguru honetan, gurasoek ordaindu beharreko haur eskolaren kuotaren %62a Udalak bere gain hartzea erabaki zuen ikasturte honetarako.

"HAUR ESKOLAREN ZERBITZUA UDARREGIRI ESLEITZEA ERABAKI ZUTEN GEHIENGO OSOZ"

Behin-behineko erabakia zela gogorarazi zuten hasieratik, 2023-24 ikasturterako hartutakoa eta haur eskolaren etorkizunaz erabakitzeko hausnarketa prozesua irekiko zuela iragarri zuen udal gobernu taldeak.

Lanketa horren emaitza dira, besteak beste, haur eskolari lotuta azken aldian hartutako erabakiak. Horregatik, aldaketa hori ordenantza fiskaletan txertatu zuten. Halere, erabaki hau egokitzapen gehiago egiteko ere baliatu nahi izan zuten. Esaterako, kiroldegiko ikastaroen prezioak berrikusteko, NOAUA! K.E.-ren Udajolaseko harrera familietara datozen haurren kasuan, kuota doakoa izatea bermatzeko edota hobarien sistema egokitzeko.

Aldaketok gehiengo osoz onartu zituzten EHBilduren eta PSEren babesarekin. EAJ abstenitu zen. Gerora ireki zuten epealdian erreklamaziorik egon ez denez, ekainaren 27an kaleraturiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez Usurbilgo Udalak jakinarazi zuen, behin betirako onartu dituztela 2024ko ordenantza fiskaletan txertaturiko aldaketok.

"HAUR ESKOLAKO ERABILTZAILEEN ARAUDIAN KUOTAK NABARMEN MURRIZTEA ONARTU DUTE"

2023ko kontu orokorra

Diru kontuekin segita, udalbatzaren ekaina amaierako osoko bilkura hartan, alor honi lotutako beste erabaki bat ere hartu zuten. Izan ere, iazko Kontu Orokorra onartzea erabaki zuten, aldez aurretik (maiatzaren 21etik ekainaren 11ra) jendaurrean egondako epealdiaren baitan, inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuela behatu ostean.

Uztaileko osoko bilkura, ezohikoa

Laster izango da hilabete honi dagokion udalbatzaren osoko bilkura. Berez, hilabeteko azken ostegunean egokitu behar luke, baina oraingoan, hilaren 25a jaieguna izanik, beste egun batera aldatu beharko dute hitzordu hau. Horregatik soilik, honenbestez, ezohiko izaera izango du uztaileko udalbatzarrak.

'Janela' erakusketak Gorka Urbizuren sormen prozesua islatzen du. Ibai Arrietaren ekarpen grafikoa funtsezkoa izan da.

"Argazkilari gisa, halako egitasmoak oso erakargarriak zaizkit"

IBAI ARRIETA DEL PICO ARGAZKILARIA

Gorka Urbizu urteko fenomenoetako bat izaten ari da. 'Hasiera bat' diskoa plazaratu zuen urtarrilean eta haren segidan iritsi dira 'Kaier bat' liburua eta 'Janela' erakusketa. Lan hauen guztien lekuko zuzena izan da Ibai Arrieta argazkilaria.

'Janela' erakusketan, Gorka Urbizuren 'Kaier bat' liburuan bildu zenituen argazkiak plazara ekarri dituzula esan daiteke, ezta?

Bai, liburuaren nolabaiteko jarraipen bat litzateke. Antzeko gauzetaz ari gara, baina beste erregistro batean. 'Kaier bat' liburuan, Gorkaren lekukotzak du garrantzia eta argazkiekin bere koaderno pertsonal hura osatu genuen. Artefaktu literario mimatu bat egin nahi zen, eta liburuan ondo funtzionatzen zuten nik egindako argazkiek eta Alex Cabeza Trigg zinemagilearen filmazioetako fotogramek.

Erakusketa honetan ordea, beste ikuspuntu bat nagusitzen dela esango nuke. 'Hasiera bat' diskoaren grabaketa prozesuaren eta zuzeneko lehen aurkezpenen lekuko izan nintzen eta ikuspegi hori da hemen jaso duguna, Alex Cabeza Trigg zinegileak egindako ikusentzunezkoekin batera. Alex ere diskoaren grabazioan izan zen eta berak jaso zuen materiala ere erakusketa honetan batu dugu.

Berri Txarrak-en 'Berba eta irudia' liburuan parte hartu zenuen. Orain, 'Kaier bat' liburuan eta 'Janela' erakusketan ageri dira zure argazkiak. Zure argazkilaritza lana azaleratzeko beste modu batzuk dira hauek, ezohikoak bezain interesgarriak, ezta?

Berri Txarrak-en liburua modu kolektiboan egin zen, eta urtebetez egin zen jarraipen baten emaitza izan zen. Eta argazkilari gisa, denbora luze batez gai bat jarraitu ahal izateak asko erakartzen nau.

Honakoan, argazkilari gisa disko baten grabaketa prozesua erretratatzea eskatu zitzaidan.

"ERAKUSKETA, MUSIKARIEN ZUZENEKOETARA GERTURATZEN DEN FORMATU BAT DELA ESAN DAITEKE"

Gorka Urbizuren bakarkako lehen diskoaren grabazioa sekretupean egin zen. Zuk ere sekretua mantendu beharko zenuen.

Ziurgabetasuna handia zen. Gorkak ez zekien zer gertatuko zen grabazioan, kanta horiek argitaratuko ote ziren ala ez... Baina planteamendu hau egin zidan: grabazioaren testigantza grafikoa jaso, eta gero gerokoak.

Grabazioak aurrera egin zuen, diskoa iritsi zen gero, eta horrekin batera etorri ziren promozio argazkiak, zuzeneko emanaldien jarraipena... Beste behin ere, oso modu naturalean sortu da gai bat epe luzez jarraitzeko aukera eta hori oso aberasgarria izan da niretzat. Halako egitasmoak oso erakargarriak egiten zaizkit.

Diskoak bezalaxe, Gorka Urbizuren inguruko erakusketak ere ezustean harrapatu gintuen.

Prozesua azkarra eta intentsua izan da. 'Kaier bat' plazaratu eta berehala sumatu zen liburuak nolabaiteko interesa piztu zuela. Nik zerbaiten hasiera gisa ikusi nuen, eta grabazio estudioan hasitakoa kontatzen jarraitu nahi nuen. Gainera, galdera asko bururatzen zitzaizkidan: behin diskoa kalean, kanta hauek zer nolako bilakaera izango dute zuzenean? Ze formaziok defendatuko du lan hau? Zaleek nola biziko dute? Galdera hauen guztien erantzunak bilatzen jarraitu nahi nuen. Bide horretan, eta argazkilaritzaren ikuspuntutik, musikarien zuzenekora gerturatzen den formatu bat da erakusketa. Eta ideia hori bera erakargarria egiten zitzaidan.

Erakusketa Donostian dago ikusgai, Santa Teresa komentuan,eta uztailaren 14ra arte egongo da zabalik.

Planteamendua egin eta berehala jaso genuen baiezkoa.

Dock of the Bay musika dokumentalen jaialdiak eta Koldo Mitxelena Kulturguneak interes handia agertu zuten. Zuzeneko emanaldien jarraipena egiten hasi nintzen eta aldi berean erakusketarako edizio lanari ekin genion. Ez da erraza izan. Bilboko Kafe Antzokiko saioa eta gero erabaki nuen erakusketaren antolaketari lehentasuna ematea.

Erakusketa bi hilabeteko lanaren emaitza izan da eta behin erakusketa bideratu eta gero, zuzeneko emanaldien jarraipenari ekin diot berriro.

Erakusketak zer nolako harrera izan du?

Oso pozik nago izaten ari den bilakaerarekin. Gaur egun, argazkilarion erakusleiho handi bat sare sozialak dira. Erraz ohitu gaitezke erabilera horietara baina ni saiatzen naiz koherentzia bat mantentzen. Erreminta potente bat da baina ez dut uste argazki baten azken erakusleihoa izan beharko lukeenik.

Gainerakoan, urratu dudan eremu berri bat izan da niretzat. Orain arte erakusketa apalagoak egin izan ditut. Kasu honetan, Gorka Urbizuk jakinmina pizten du eta horrek ere baldintzatzen zaitu nolabait, baina erakusketara etortzen direnekin halako feedback-a sortu da, bestela ematen ez litzatekeena. Prozesua bera oso aberasgarria bihurtzen da eta asko ikasten da. Ikasbide prozesu oso interesgarria izan da niretzat.

"ERAKUSKETA BI HILABETEKO LANAREN EMAITZA IZAN DA, ETA IKASBIDE PROZESU OSO INTERESGARRIA"

Donostiako Santa Teresa komentuan batu ginen Ibai Arrietarekin.

“Janela”. Leiho bat Gorka Urbizuren unibertsora

"Garbiñe Ortega komisarioak Gorka Urbizu musikariaren, Ibai Arrieta del Pico argazkilariaren eta Alexander Cabeza Trigg zinemagilearen talentua bildu du, hasiera berri baten sorrera adierazten duen erakusketa bat sortzeko. Argazkiei eta 16 mm-ko filmei esker, taldearen une magikoak bizi ditzakegu sortze-prozesuan Teatre de Ca l'Eril estudioan, Lleidan", Koldo Mitxelena Kulturgunearen web orrian irakurri daitekenez. "Museo-altzari guztiak Recreakultenak dira, eta proiektuaren oinarri den etika indartzen laguntzen dute. Etika hori materialen berrerabilpenean eta kultura-sektorearen ingurumen-inpaktua murriztean oinarritzen da, jasangarritasuna helburu duelarik".

Bisita gidatuak, Ibai Arrietaren eskutik

Erakusketa uztailaren 14ra bitarte egongo da zabalik, asteartetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara.

Uztailaren 11n eta 12an, erakusketa Ibai Arrietaren azalpenek lagunduta ikusteko aukera izango da. Biak, 17.30ean hasita. Izen-ematea: photo@ibaiarrieta.com

Erakusketa Santa Teresa komentuan topatuko duzue, Donostiako alde zaharrean, portualdean.

'Hasiera bat' grabaketaren jarraipen grafikoa egin zuen Ibai Arrietak.

Gaztelubide kaletik gora eginez aurkituko duzue Koldo Mitxelena Kulturguneak Santa Teresa komentuan egokitu duen klaustro ikusgarria.



'Kantu berri bat gara' ikuskizuna aurkeztuko dio Jon Maia Soriak Usurbilgo herriari, ostiral honetan.

"Emozioz betetako gau bat bizitzeko aldartearekin etorri"

JON MAIA BERTSOLARIA

'Kantu berri bat gara' kontzertu soil batetik haratago doan ikuskizuna dakar Usurbilgo Udalaren eskutik, Jon Maia Soriak ostiral honetan gaueko 22:00etan Dema plazara.

"Kantu berri bat gara" ikuskizuna eskainiko diguzu uztailaren 12an. Aurreko emanaldiari berri hitza erantsi diozu. Hortxe nobedadea.

Bigarren lanak nobedadea du kantu gehienak berriak direla eta ez lehenengo lanean izan ziren bezala bertsioak. Hori nahi nuen azpimarratu. Diskoan 1400. urte inguruko euskal kantu zaharrenetik abiatzen gara (Bereterretxeren Kanthoria) eta bukatzen dugu "Euskal Herria B" izenekoarekin. Abesti hau Euskal Herria adierazteaz akordatzen ez garen Euskal Herria horretaz dihardu; industriala, hirietako auzoak, euskalkirik gabekoak, etorkinak, ez dena berdea eta urdina… Etengabe berritzen ari den kantu bat da gure herria eta gure identitatea eta ideia hori nahi nuen azpimarratu izenburu horrekin. Ikuskizuna ere berria da, berritua.

Zergatik gara kantu bat?

Kantu egituran ezagutzen dugun abesti zaharrena da Bereterretxeren Khantoria. Nola da posible Zuberoako borda hartan, 1400 urte inguruan hasi zen kantu horren bizitzak gaur egun jarraitzea 600 urte pasa eta gero Spotifyren garairaino? Kantu horren bidaian azaltzen da ondoen nire ustez, gure biziraupenaren sekretua.

"ETENGABE BERRITZEN ARI DEN KANTU BAT DA GURE HERRIA ETA GURE IDENTITATEA"

Transmisioa izan da gakoa?

Transmisioa eta giza kate erraldoi bat. Kantu hori sortu zenetik gaur arte Nafarroako erresuma galdu zen, Frantziako errepublika iritsi zen, munduko bi gerra pasa ziren Iparraldean, Gerra Zibila Espainian, lau hamarkada luzeetako diktadura, eta zatiketa administratibo bat. Dena, gure hizkuntza, gure kultura eta gure identitatea galzorian jartzeko neurriz beteak. Orduan, nola da posible kantu horrek 600 urteko bidaia bat egin izana bidean galdu eta desagertu gabe? Gauzak eraldatu egiten dira baina inoiz aldatu, galdu ez dena da gure kantu horren existentzia.

Iragana aipatu duzu, baina zer nolako orainari eta etorkizunari kantatu nahi diozu ikuskizunaren bidez?

Nire ikuskizun hau aitzakia bat da nire herri proposamena plazaratzeko. Hori da nire helburu nagusia; edertasunaren eta emozioaren bidez, herri proposamen bat egitea. Kontzertuan zehar irudikatzen dut Euskal Herri bat, Bereterretxeren Kanthoriaren garaitik hasten dena eta gaur egungo hirietako periferietan bukatzen dena, etengabe eraldaketan ari den euskal identitate bat, euskal identitate berriaren bilaketa. Iraganetik etorkizunerako proposamen bat egiten dut.

Tokian tokiko eragileen parte hartzearekin ezta?

Gustatzen zait joaten naizen lekuan bertako errealitatearekin konektatzea moduren batean eta bertako jendeari ahotsa edo presentzia ematea. Horrek aldi berean, kontzertu bakoitza errepikaezina edo bakar bihurtzen du. Usurbilen ere hala izango da.

Zer nolako harremana sortzen duzu ikus-entzuleekin?

Niri gustatzen zait moduren bateko engaiamendu bat, ha-

⟶ rreman zuzena izatea joaten naizen lekuarekin. Batzuetan joan izan naiz aurretik bertako jendearekin egotera. Gustatzen zait hori dena bizitzea kontzertuaren bueltan. Zorionez, azkeneko bi urte hauetan harreman handia izan dut Usurbilekin. Horregatik ere berezia izango da niretzat kontzertu hau.

Hilabete hauetan zer harrera izan du zure herri proposamenak?
Joaten garen lekuan beti da hunkigarria gertatzen dena. Kontzertu guztietan oso harrera beroa jaso dugu, jende pilo bat etorri da eta nabaritzen da kontzertua kantuak entzutea baino gehiago dela. Nabaritzen da jendeak gogoz eta esperantzaz hartzen duela ematen diogun herri proposamen hori. Azkenean, uste dut denok nahi dugula bide-orriak ikusi. Saiatzen naiz jendeari ipar bat ematen. Euskal Herri proposamen bat egitea jendeak beso zabalik hartzen du eta zorionez, jende askok bat egiten du horrekin. Oraingoan, errepertorio berriarekin zalantza nuen nola joango zen kontzertua, baina lehenengoarekin bezalaxe kontzertuak hasieratik bukaerara indar handia daukala sumatzen dugu.

Nabari duzu, beraz, bide-orri beharrean bagaudela?
Nik uste dut Euskal Herria trantsizio egoera batean dagoela. Berdefinitzen ari gara gure bizimoduak, adierazpen kulturalak, dena. Euskarak ere ziklo historiko bat agortu duela uste dut eta lehenbailehen ziklo berri bat hasi beharra daukagu. Arazo unibertsalak ere iritsi dira gugana; intolerantzia, xenofobia, homofobia eta ultraeskuinaren erasoa... Mehatxuz betetako mundu batean gaude. Jendeak ziurgabetasun handia sentitzen du munduari begira. Pandemiak ere eragin handia izan du. Edozein momentutan dena aldatu daitekeela egiaztatu dugu. Horregatik uste dut, jendeak gogotsu hartzen duela proposamen zehatz bat egiten zaionean. Gurea proposamen zehatza da, nire tesia litzateke, nire Euskal Herriaren ikuskera, hasten dena Zuberoako borda batean eta bukatzen dena hirietako periferietako euskaldunekin.

Jon Maia Soriak aipatu digu "ondo pasatzeko gau bat" izango dela ostiral honetakoa.

Zer aldarterekin joan beharko genuke zure ikuskizunera?
Zabalik, ondo pasatzeko eta emozioz betetako gau bat bizitzeko aldartearekin.

Zer modutan ari zara ikusten zuk sustaturiko 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren garapena?
Usurbildarrek nola ikusten zuten beren herria, zerk ezaugarritzen zuen eta zer nahi zuten balorean jarri, haiek emandako informazio eta iritzi horiei guztiei forma ematea izan zen nire lana. Apustu berritzailea zen. Herri identitatea dinamizatu eta proiektatzeko egitasmoan bihurtu da, bide-orri modukoan eta hori gauzatzen ikusteak poz handia ematen dit. Uste dut, Usurbil itsasargi bat izan daitekeela beste turismo eredu baten bide horretan. Herri eredugarria da. Begira parte hartze prozesu zenbat dituen eta herritarrek zer parte hartze aktiboa duten herriaren diseinuan eta bizi ereduan. Harritu nintzen hasieran, Usurbil deskubritu nuenean. Baina deskubritzen duzu herri bat, 6.000 biztanlekoa, non Europako daturik onenak dituen zaborraren kudeaketan, inon martxan jarri ez diren zaintza politikak dauzkan, biak ere herritarren borrokatik eta parte hartzetik lortuak, kultur sorkuntzaren presentzia duena kaleetan, Euskal Herri gehienean galtzear dagoen sagardo kultura dagoen baserri eta etxeetan, euskararen erabilera Euskal Herriaren bataz bestekotik izugarri gora dagoen, Euskal Herriko lehen Euskararen Astea bertan egin zen, Ez Dok Amairuren topalekua izan zen, non Artze anaiak eta Zumeta bezalako figurak zeuden... Usurbilek ditu gauza asko Euskal Herriko herri gehienek ez dituztenak, herri txiki bat izanik. Hori dena balorean jarri eta egitasmo berriak abiaraztea izan da guk egindako proiektuaren funtsa. Askotan erakustekoak ez direla iruditu zaizkigun gauzak dira, aldiz, munduan jende askori interesatu dakizkiokeenak. Usurbilek berezitasun asko ditu eta balorean jarriz gero, oso erakargarriak direnak beste mundu bat eraikitzeko tresna eta palanka izateko. Usurbil turismoan ere aitzindaria bihurtu da.

"PROPOSAMEN ZEHATZA DA, NIRE TESIA LITZATEKE, NIRE EUSKAL HERRIAREN IKUSKERA"

"USURBILEK BEREZITASUN ASKO DITU, OSO ERAKARGARRIAK BESTE MUNDU BAT ERAIKITZEKO"

Ostiraleko ikuskizuna, beraz, itsasargi horretara itzulera izango da zuretzat?
Usurbil benetan herri berezia da, nik ere maitasun berezia diodan herri bat. Kontzertua ere, beraz, berezia izango da. Espero dut jendea etortzea eta gau berezi bat izatea, gau magiko bat.

SUDOKUA

U		R	E		
	S		A		U
	U			E	R
T				S	
S		U	R		
R			S		T

Hodeiak saretzen direnean, zerua ageri da. Bete itzazu hutsuneak SARETU hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (S, A, R, E, T eta U). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Handienetik txikienera

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9.

Zenbat

Zenbat txita dabiltza inguru harrigarri honetan?

Eta zenbat txori edo hegazti ikusten dituzu? (Oiloak ez ditugu kontuan hartuko)

Soluzioak 20. orrialdean.



Mendira

Gure laguntxoek hauxe behar dute mendira joateko: iparrorratza, laban bat, telefono bat, argazki-kamera bat, eguzkitako krema, bisera bana, kantinplora bana, bina goxoki, bizkar-zorro bana, sagar bana, ogitarteko bana eta betaurreko bana. Dena al daukate?



Zeeer?!

Jarri iruditxo bakoitzari bere hizkia, eta esaera zahar bat azalduko zaizu. Erabili hizki-marrazki alfabetoa.



Labirintoa

Zer bide egin behar du urak iturrira iristeko?

Itzalaren aldeak

Begiratu bi irudi hauei. Itzala ez da erabat zuzena, ezta? Aurki itzazu bien arteko aldeak. Hamabi dira guztira.

Margotu

Eman zure gustuko koloreak saltari trakets hauei.



Soluzioak 20. orrialdean.

Altxa Burua Gipuzkoa mugimenduko hainbat ordezkari, ekainean Udarregi ikastolan eginiko topaketan.

Pantailekin elkarbizitza osasuntsuagoa sustatzeko ahaleginean

Altxa Burua Usurbil taldeak gaztetxoen artean pantailen erabilera egokia sustatzeko lanean dihardu. Gipuzkoa mailan 50 herri eta auzoetan osatu diren taldeen sareko kidea da herri eragile hau. Tresna digital hauen erabilera desegokiak eragindako kalteekiko kezkak batu ditu. Berriki topaketa egin dute Usurbilen.

Zertarako osatu duzue Altxa Burua Usurbil taldea?

Udarregi ikastolako maila ezberdinetako ikasleen 15-20 bat guraso gara. Orohar, kezka bat dago mugikorren erabilera desegokiarekin eta horrek kasu batzuetan sortzen dituen arazo larriekin. Batez ere, umeei nola eragiten dien ikustean, are kezka handiagoa sortzen du gurasoen artean. Gurea bezalako taldeekin sare bat sortu da. Bertan, Gipuzkoako 50 herri eta auzo gaude. Haien guztien topaketa egin genuen ekainean Usurbilen.

Zergatik nahi duzue pantailak erabiltzen hasteko haurren adina atzeratzea?

Lerrootan adieraziko dugun guztia baliagarria da umeentzako baita helduentzako ere. Ikerketa askok ohartarazten dute mugikorraren gehiegizko erabilerak eragindako kalteez, are gehiago eragiten dietenak umeei: kontzentrazio arazoak, dementzia kasuak batzuetan umeengan. Ikusten ari da irakurketan atzerakada izaten ari dela pantailaren erabilera desegokiagatik, ikusmen arazoak, trebetasun sozialen murrizketa baita ere pornografiarako sarbidea eta menpekotasuna sortzen ari dela eta jazarpena izateko beste bide bat dela.

"IKERKETA ASKOK OHARTARAZTEN DUTE MUGIKORREN GEHIEGIZKO ERABILERAREN KALTEEZ"

"GURE HELBURUA DA KONTZIENTZIA PIZTEA, GURASO BEZALA ERE EREDU GARELAKO GAZTETXOENTZAT"

Nola sustatu daiteke pantailekiko erabilera egokia geroz eta digitalizatuagoa dagoen gizarte honetan?

Arazoa gainera etorri zaigu eta arazo horrekin elkarbizitzen norberak ahal duena egiten du. Gure helburua da kontzientzia piztea, guraso bezala ere eredu garelako gaztetxoentzat eta lanketak gugandik hasi behar du, helduongandik. Kontziente izan behar dugu guk ze erabilera egiten ari garen eta erabilera egokia egiten ikasten, baina ez da erraza. Gehiegi erabiltzen da, mugikorra erabiltzea atzeratzeko estrategiak lantzea komeni da. Egia da, azken urteetan hobetu egin dela egoera, pixka bat beranduxeago ematen zaiela umeei mugikorra. Baina lanketa handia dago egiteke.

Haurrak noiz hasten dira eskatzen sakelako telefonoa?

Pandemia aurretik bataz beste 14 urterekin eta pandemia garaian 12 urtera jaitsi zen eta orduan hasi zen kezka. Lortu da lanketa egitea ikastolan, oso pozik gaude. Oso harreman emankorra dago ikastolarekin, hausnarketa bateratua egiten ari gara. Udarregin ikasleek mugikorrak itzali behar dituzte. Gizarte mailan ere kontzientziazioa pizten ari da. Gu hasi ginenetik hona, askoz gehiago hitz egiten da gai honi buruz. Hausnarketa hori ere piztu da ikastolan, zuzendaritzan eta irakasleen artean; zenbat, zertarako erabili eta zer eragina duen irakurketan, kontzentrazio mailan. Eztabaidan dago, zer neurritan edo zertarako den tresna pedagogiko egokia chromebook-a; gehiegizko digitalizazioaren aurrean, ez ote dugun desdigitalizazio baterantz jo behar eta paperezko materialetara itzuli behar…

Zergatik eskuratzen dute mugikorra hain goiz?

Erakargarriak dira soinu eta argi aldetik. Horrez gain, tal-

⟶ dekoa sentitzeko beharrak eragin handia du nerabeen artean. Horren aurrean, landu beharreko estrategien artean dago, gurasoak elkarrekin ados jartzea. Altxa Burua Gipuzkoa mugimenduan lan talde espefiziko bat sortu da horretarako. Beharrezkoa da gure artean honi buruz hitz egitea, gure kezkak eta zalantzak partekatzea eta bateratze lan hori egitea, kontzientziazioa zabalduz, ikasleekin gaia landuz, gurasoekin formakuntza saioak eginez. Argi utzi nahi dugu, ez gaude pantailak erabiltzearen kontra, haien erabilera osasuntsu eta orekatuaren alde baizik. Helburua da gure artean saretzea eta indarrak batzea, ez goaz inor epaitu eta seinalatzera. Guk trebatu behar dugu lehenbizi, aplikazio asko ez ditugu ezagutzen eta ez dakigu seme-alabak zer egiten ari diren. Beraz, dedikazioa, denbora eskatzen du. Horregatik, denon artean errazagoa, eramangarriagoa izan daiteke. Taldean indar gehiago dugu, hartara beste gurasoen estrategiak ezagutu ditzakegu. Esaterako, kafe tertulia izan genuenean, aberasgarria izan zen, haur txikiagoak zituztenek entzun zutela zaharragoen egoera zein zen. Guraso batek zioen, 12 urterekin erosi ziola mugikorra gaztetxoari, baina etxeko egoera nola aldatu zen ikusita argi zuela hurrengoei ez ziela emango. Ikusten eta ikasten goaz eta hori beti da aberasgarria.

Usurbilen zer nolako lanketa ari zarete egiten?

Bilerak antolatzen ditugu gurasoekin, orain arte ikasmailaka egin ditugu. Miren Rosen formakuntza jasoten dute LH5 eta 6koek. Aurten egin nahi duguna da goitik beherako lanketa, ikasmailako esperientzia hurrengo mailei transmititzea, egindako lana gal ez dadin. Berriki egin dugun Altxa Burua Gipuzkoa mugimenduko taldeen topaketen ondorioa izan da, bestalde, gutun bana helaraziko dugula Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Osasun Sailera. Hain zuzen, gaiak hartu duen garrantziaren adierazlea da, Hezkuntza Sailetik Osasun Sailera igaro dela. Hezkuntza Sailari eskatuko zaio, 16 urtera arte mugikorra eskura izatea debekatu ahal izatea klase orduetan eta Osasun Sailari eskatu behar diogu kanpaina bat egin dezala, mugikorraren erabileraren ondorio txar horien kontzientzia pizteko. Gainerakoan, Altxa Burua Gipuzkoa material asko sortzen ari da, web orri bat ere badu. Gaia indar handia hartzen ari da. Udala eta merkatarien babesa ere badugu. Izan ere, herri merkataritza zaintzaileagoa izateko egitasmoaren baitan, pegatinak jarri dituzte herriko dendetan, haurren batek mugikorra beharko balu saltokietan sartu eta dendariak utzi diezaion.

Altxa Burua Gipuzkoak ekainean Udarregi ikastolan eginiko topaketa.

"HELBURUA DA GURE ARTEAN SARETZEA ETA INDARRAK BATZEA. EZ GOAZ INOR SEINALATZERA"

"GUTUN BANA HELARAZIKO DUGU, EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA ETA OSASUN SAILERA"

Teknologiaren erabilera familian, 10 gako

1-Eredu izan: mugikorra eta pantailen erabilera koherentea egin. Hau da, seme-alabek imitazioz ikasten dute eta helduok seme-alabei eskatzen diegun horren eredu izan behar dugu.

2-Edukiak zaindu: eduki digitalak balio eta ereduetan hezten dute, positibo zein negatiboetan. Beraz, hautatu zure seme-alaben adin eta heldutasunari dagozkion edukiak.

3-Mugak jarri: ez izan beldurrik mugak jartzeari seme-alaben pantailen bidezko jardueretan. Hobe da muga eta neurri bakan batzuk jartzea baina horiei tinko eustea, asko jartzea eta malguegi jokatzea baino.

4-Ordutegiak ezarri: mugikorra zein beste pantailak erabiltzeko nahiz mezuak bidaltzeko ordutegiak ezarri. Jakinarazpenak mugatu edo isildu.

5-Non ez: eremuak mugatu eta etxean "gailu elektronikorik gabeko" guneak izendatu (logelak adibidez).

6-Beste jarduera motak sustatu: pantailarik gabeko jarduerak sustatu, familiarekin edota lagunekin denbora partekatzeko, irteerak, aire zabalean ekintzak…

7-Ahaldundu, jarrera kritikoa sustatu: sarean dagoenari buruzko elkarrizketa eta jarrera kritikoa sustatu: dena ez da sarean zabaldu behar, eta informazio guztia ez da fidagarria.

8-Aurrez aurreko harremana lehenetsi: aurrez aurre esatera ausartzen ez bazara, ez esan telefonoz. Errespetua beti.

9-Ez da oparia: erabiltzeko emandako gailua da. Oparia baldin bada, jabeak "nahi duena" egin dezake. Ez da zigor neurria ere (ez "kendu" mugikorra gatazkak amaitzeko neurri gisa).

10-Interesa izan: seme-alabek kontsumitzen duten hori haientzat garrantzitsua zergatik den ulertu. Adostasunak bilatzen saiatu.

Izan adeitsua zeure buruarekin erabilera egokia egitea ez baduzu lortzen. Errua sentitzeak ez baitu laguntzen. Geuretzat eta geure seme-alabentzat onena nahi dugu.

Informazio gehiagorako: altxaburua.eus

Urte honetan “oposizio proaktibo eta eraikitzaile gisa” PSE-EEk egindako lana defendatu du Petri Romero zinegotziak.

PSE-EEk kontinuistatzat jo du EHBilduren legealdiko lehen urtea

"Maniobra tartea" mugatua dela dio Petri Romero zinegotzi sozialistak, baina "Usurbilgo herritarrekiko konpromisoa" berretsi du, eta sozialistek "herritarren mesederako izango den lana" egingo dutela adierazi ohar baten bidez.

2023ko ekainean, duela urtebete abiarazitako 2023-27 legealdiari buruzko balantzea plazaratu du Usurbilgo PSE-EEk. Tarte honetako udal gobernu talde EHBilduren proposamena kontinuistatzat jo du. "PSE-EEk uste du gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proiektua jarraitua dela. Sozialistek sei zuzenketa aurkeztu dizkiete aurrekontuei, espazio publikoak, berdeguneak eta emakumeen kirola hobetzeko, besteak beste".

Ildo horretan, "udal talde sozialistak deitoratu egin du aurrekontu proiektuak euskal subiranotasunaren barometroaren ikerketa talde batekin, Udalbiltzarekin edo "Zubieta Lantzen" elkartearentzako laguntzak bezalako partidak jasotzea".

"Lanean jarraituko dugu proposamen eraikitzaileak eskaintzeko"

Udal talde sozialistaren hitzetan, "uste dugu partida hauek ez dakartela hobekuntza nabarmenik Usurbilgo herritarren bizitzarako, eta partekatzen ez dugun joera ideologiko argia dute. Usurbilgo udal talde sozialistatik lanean jarraituko dugu proposamen eraikitzaileak eskaintzeko eta gure komunitatearen mesederako lankidetzan aritzeko, betiere herritar guztien interesak eta ongizatea defendatuz".

Tasak eta zergak

Aurtengo udal aurrekontuekin batera, 2024ko udal zergen eta tasen %2,9ko igoerarekiko desadostasuna agertu dute. Petri Romero bozeramaile sozialistaren ustez, "tasa horiek % 2,6ra eguneratu beharko lirateke, urte arteko KPIari dagokionez".

"USTE DUGU PARTIDA BATZUK EZ DAKARTELA HOBEKUNTZA NABARMENIK USURBILDARREN BIZITZARAKO"

Ondorioz, "EHBilduk proposatutako igoera ahalegin handia da herritarrentzat, eta ez dago justifikatuta. Horregatik, proposamenaren aurka bozkatu genuen. Dagokion batzordean jada aurreratu genuen Udalaren finantza-egoera ona zela, eta ekitaldi honetako likidazioak hori berresten du, eta horrek bermatzen du gure proposamena, % 2,6ko igoera, gobernuak proposatutako %2,9aren ordez ", azaldu du Romerok.

Negoziatzeko eta akordioak lortzeko prest

"Maniobra tartea mugatua" dela adierazita, "Usurbilgo herritarrekiko konpromisoa" berretsi dute sozialistek, eta "herritarren mesederako izango den lana" egingo dutela. Ildo horretan, sozialistek azaldu dutenez, "beti negoziatzeko eta akordioak lortzeko prest gaudela erakutsi dugu, hori bai, gure jarrera politikoa alde batera utzi gabe". Horregatik, "legegintzaldiko lehen urtean oposizio proaktibo eta eraikitzaile gisa egindako lana defendatu du" aipatu udal taldeak.

Atalluko Garbigunea, udako martxan

- Uztailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 eta 16:00-18:50 artean zabalik. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean irekiko dute. Igande eta jai-egunetan itxita.
- Uztailaren 15etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean. Igande eta jai-egunetan itxita.

Metxa ofiziala piztearekin batera, kirolari talde ezberdinei harrera eginda hasi zuten ekainaren 21eko ikuskizuna.

Olinpiar Jokoei ongi etorria Aginagan

Uztailaren 26an Parisen emango dieten hasiera ofizialari itxaron gabe, Olinpiar Jokoak hasi dituzte... Aginagan.

Mundu mailako hitzordu entzutetsu honi ongi etorria eman zieten Aginagako eskolakoek ekainaren 21ean, Eliza Zaharra Elkargunean egindako ekitaldian. Metxa ofiziala piztearekin batera, kirolari talde ezberdinei harrera eginda hasi zuten, nola ez, ikuskizun bilakaturiko kirol jaialdia.

Izan ere, aurkezpen lanetaz arduratutako ikasleek Eliza Zaharrera hurbildu ziren senide eta lagunei gogorarazi zieten moduan, azken hiruhilekoan landutako proiektua gai horri buruzkoa izan da. Hiruhileko hau jendaurreko emanaldi bereziarekin agurtu zuten, baita bide batez, 2023-24 ikasturtea ere. Merezitako oporraldira emanaldi hau eskaini eta aiton-amonek sukaldaturiko bazkari eder askoaren ostean joan ziren.

Eskertza

Ikasturte amaiera honetan, ondoko eskertza helarazi nahi diete eskolakoek aiton-amonei, eskolarekiko agerturiko begiruneagatik. "Maiatzean euri eta ekainean segi bustiarekin ere....Zorioneko gu, laino beltzen gainetik ageri den eguzki izpi txikienak ere balio digulako! Eskola txikia dugu gurea, baina pertsona handiak topatzen ditugu gure auzoan. Beti eskolako haurrei laguntzeko prest egon ohi dira aiton-amonak: azokarako oihalak josteko prest, gozogintzan errezetak erakusteko prest, baratza martxan jartzeko prest... eta kurtsoa amaitzen ari den honetan ere ez ditu eguraldiak kikildu. Maiatzean txikitako jolasak ekarri zituzten eskola aurrera: Tabak, kanikak, zibak, txapak, toka, lokotsak, baita hankei eraginez aurrera egiten duen lurreko trainerilla eta trebetasun berezia eskatzen duen uztaia ere! Irribarrea eta ilusioa izan ziren nagusi erronka bakoitzeko eta elkarrekin gozatuz, jolasaren esperientziatik edan genuen denok.

"AZKEN HIRUHILEKOAN LANDUTAKO PROIEKTUA OLINPIAR JOKOEI BURUZKOA IZAN DA"

Ekaina berriz ekintzaz beteta etorri zaigu. "Zero km" lemapean, Aginagako bazterrak ezagutzen jarraitu dugu jubilatuen gidaritzapean: baserriak, urtegiak, bide berriak edota Oria errioaren ikuspegi zabalaz gozatzeko tokiak. Eskerrik asko aurten ere eskola komunitatearekin bat egin eta elkarrengandik ikasteko aukera emateagatik!".

Matrikulazio garaia Lanbide Eskolan

Ekainaren 24ra arteko epea zegoen 2024-25 ikasturterako aurrematrikulazioa bideratzeko. Tramitazio hau egoki egin dutenek, matrikulazioa tramitatu ahalko dute egunotan, behin behineko zerrendak plazaratu eta haiei alegazioak aurkezteko epea itxi ostean:

- Uztailak 11: behin betiko zerrendak kaleratuko dituzte.
- Uztailak 11-15 (14:00ak arte)/uztailaren 17ra arte/uztailak 19-22: matrikulazioa bideratzeko tarteak.
- Uztailak 23-24/irailak 1-urriak 18: ezohiko matrikulazio aldia.

Informazio gehiagorako:
943 364 600
lhusurbil.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patri
Patri jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

Bizitoki duten Culleran Maria Jesus Urbietak eta Julian Bordak argazkiko kideekin batera osatu duten taldea.

Kantu-jiran helduen egoitzetan, bizipoza partekatzen

Cullera (Valentzia) bizitoki duten Maria Jesus Urbieta eta Julian Borda usurbildarrak kide gehiagorekin otxotea osatu eta hango egoitzetan kantu-jiran dabiltza azken urteotan, bizipoza guneotan bizi direnei helarazten. Udaberri honetan, Egurtzegin izan dira. Ohitura honen nondik norakoez galdetu diogu Urbietari.

Egurtzegi inauguratu zenetik urtea beteko da uztailaren 11n. Kalezarko zaintzadun etxebizitzen auzune berria herrian txertatzeko ahaleginean, hainbat bisitari izan ditu azken urtebetean; tartean, lerrootako protagonistena, Culleran (Valentzia) bizi diren Maria Jesus Urbieta eta Julian Borda kide dituen otxotearena. Haien kantu taldearen berri jaso dugu lerrootan.

Noiztik bizi zarete Culleran?

Lau urte daramagu eta hemen geratu ginen, konturatu baikinen hemengo negua desberdina zela. Hemen negua leunagoa da, berogailu beharrik ez eta askoz hobeto. Hemen koadrilatxo bat segituan egin genuen, alde horretatik ere oso ondo gaude. 36 urte dira hemen etxe bat hartu genuela itsasoaren aurrean, toki polita da. Lehen, noizean behin etortzen ginen egun batzuetarako.

Kuadrilla osatu duzuela diozu. Sare horrek kantuzale taldea osatzea ahalbidetu dizue?

"LIBURUXKA BAT ATERA GENUEN KANTEKIN ETA HASI GINEN HONDARTZAN ABESTEN"

Benidormera joaten ginenean hondartzan kantu-jira bat egoten zen egunero. Gustatu eta esaten genuen ea zergatik ez genuen halako zerbait osatuko Culleran. Liburuxka bat atera genuen gure gustuko kantekin eta hasi ginen hondartzan abesten, duela hiru urte. Taldean, Baionako gizon bat dugu eta adierazi zigun ea lagunduko genion otxote bat osatzen. Ama egoitzan zuela oroitzen zuen eta tarteka nola talde batzuk abestera joaten ziren. Une horietan, ama piztu egiten omen zen eta abesten ederki pasatzen zuela zioen. Halako talde bat sortu nahi zuen. Lagunduko niola esan nion eta hala osatu genuen egun dugun taldetxoa. 2023ko otsailean entseatzen hasi ginen. Handik, etxetik gertu dugun egoitzakoei adierazi genien nahi bazuten joango ginela abestera bertan bizi zirenei. Segituan baiezkoa eman ziguten, joateko lasai. Asko gustatu zitzaien. Hala hasi ginen pixkanaka, hamabostean behin, batzuetan astero, saioak inguruko egoitzetan eskaintzen. Hemen asko daude, herri batzuetan bizpahiru ere badaude. Hala hasi ginen eta hortxe segitzen dugu. Hala, udaberri honetan, Usurbila joan beharra suertatu zitzaigun. Nik Hernaniko egoitzan 99 urteko izeba bat dut eta taldekoei proposatu nien bertan kantatzea. Hernaniko egoitzakoekin hitz egin nuen aldez aurretik. Pare bat bideo bidali nizkien nortzuk ginen ikus zezaten. Segituan baiezkoa eman zidaten. Bide batez, alabak adierazi zidan ea Egurtzegin zergatik ez ginen saiatuko. Deitu nien eta han ere izan ginen. Oso pozik aritu ginen. Kalezarren solairuz solairu joan ginen abesten. Euskal kanta ezagunak txertatu genituen, Mikel Laboaren "Txoria Txori" esaterako. Taldeak kanta ikasteko denbora gutxi izan arren, ederki saiatu ginen. Izan ere, euskarazko kanta ezagun batzuk sartu nituen liburuxka honetan eta saiatzen naiz gure kantak abesten. Talde kideei itzultzen diet kantek esan nahi dutena.

"EUSKAL KANTA EZAGUN BATZUK SARTU NITUEN LIBURUXKAN ETA SAIATZEN NAIZ HAIEK ABESTEN"

Pandemiaren ondorena bizi berritan hasi zineten egoitzetan abesten. Zer nolako harrera egin zitzaizuen?

Oroitzapen oso ona dut. Esaten zietenean kantatzera gin-

⟶ doazela, haientzako pozgarria zen. Konturatu zirenean kantak oso ezagunak zirela, kuadrillan batzuk baditugu oso ausartak direnak jendea animatzen eta oso gustura aritu ziren zeregin horretan. Aurreneko emanaldietan musukoa jantzita eman behar genuen. Beraiek ere bai. Batzuk baziren beldur gehiago zutenak, inguru hurbilean zerbait gertatu zitzaielako. Beldur pixka bat bazegoen, baina pixkanaka hori ere kendu zen eta normaltasunez jardun dugu. Batzuk espontaneoki ateratzen ziren dantzatzera. Oso bideo politak ditugu garai hartakoak. Ahoz ahokoak funtzionatu zuen gero. Egoitza horietan bizi direnen senideei esaten zietenean kantatzera gindoazela, ikustera joaten ziren. Asko eskertzen zuten. Ea berriz noiz joango ginen galdetzen ziguten, ahal bagenuen biharamunean itzultzeko. Hemen, egoitzetan daudenak bakardade handia bizi dute. Beraiekin hizketan jarri eta istorio latzak kontatzen dituzte. Horregatik, animatzeko zerbait egin beharra ikusten genuen. Saiakerak merezi duela iruditzen zait, halako talde gehiagok egon behar lukete egoitzetara joateko. Horren erakusle, Suecako erresidentzia zoragarrian izan ginen abesten. Azkenekoz egon ginenean, hango monitoreak adierazi zigun gu gindoazelako emakume guztiak ile-apaindegian izan zirela. Horrek argi uzten du haiekin une atsegin bat bizitzera norbait joateak eragiten dien poza.

Zuen bisitak eta kantuek lagunduko diete egoitzatik kanpoko mundura gerturatzen ezta?

Bai. Oso atseginak dira, oso esker onekoak. Gure etxetik gertu dagoen egoitza batean, Zumarragako emakume bat dago. Esan genionean euskaldunak ginela, haren poza! Komentatu dugu berriz egoitza horretara itzultzen garenean Mikel Laboaren "Txoria Txori" abestu behar diogula.

Elkarrizketaturiko otxoteak udaberri honetan Egurtzegin eskainitako emanaldia.

Hernani eta Egurtzegikoak salbu, gainerako saioak zuen inguruan eskaini dituzue?

Bai. Valentzian bertan, eta hemen, gu bizi garen herri inguruetan. 12 egoitzetan egon gara, haietatik batzuetan joan izan gara bizpahiru aldiz. Asko eskertzen dute, bizipoza ematen die haiekin egoten garen uneak. Hori ikusten dugunean guk ere oso gustura pasatzen dugu. Saiatzen gara pixkanaka hobetzen, hobeto egiten; bideoak ikusita akatsak ikusiz, hobetzen. Ilusioz eta aurrera jotzeko prest gara.

Zuk aldez aurreko esperientzia baduzu. Usurbilgo Irriu abesbatzan parte hartutakoa zara. Nola oroitzen duzu bilgune hau?

Kantatzea asko gustatzen zait, beti izan dut gustuko. Irriu abesbatzan urte asko egin ditut. Hona etorritakoan utzi behar izan nuen. Baina gabonetan horra joan izan naizenetan, beti ahalegindu naiz abesbatzara joaten, gustuko dut giro hori. Hemen beste abesbatza batean parte hartzen hasi nintzen. Bertan dena valentzieraz egiten da, abesbatza oso ona da. Zuzendari bikaina dugu. Hasieran valentzieraz ez nuen ulertzen asko, baina hiru urte daramatzat bertan. Hemen musika zaletasun izugarria dago, hor bezala. Igandero hemen kontzertua egoten da. Jendez betetzen da beti. Oso emanaldi onak izaten dira. Txikitatik izaten dute kontzertuetara joateko ohitura. Mugimendu handia dago inguruotan. Erraztasun handia dago jendea musikara sartzeko eta gozatzeko. Musikazalea denak, musika gustuko duenak, hemen zaletasun handia aurkituko du.

"SAIAKERAK MEREZI DUELA IRUDITZEN ZAIT, HALAKO TALDE GEHIAGOK EGON BEHAR LUKETE"

Kantuarekin hartueman luzea duzu. Zer eman dizu zaletasun honek?

"HAMABI BAT EGOITZETAN EGON GARA, HAIETATIK BATZUETARA JOAN IZAN GARA BIZPAHIRU ALDIZ"

Alaitasuna, bakea, poza. Kantatzen nagoenean ondo sentitzen naiz. Zuk kantatzen duzun unean, aurrean aurpegi alaiak ikusten badituzu, horrek merezi du. Ez da kostatzen, erraz prestatzen zara horretarako. Osatu dugun kuadrilla hau ere bai, Usurbila etorri eta Hernaniko egoitzan zein Egurtzegin saioa eskaintzeko proposamena egin nienean bezalaxe.

Usurbila etorri zaretenean hona itzultzeko tiradizorik sentitu izan duzue?

Behin jubilatuz gero, hemen bizi-kalitate ederra dago. Itsasoa duzu, entretenimendua, eguraldi ona. Udaberria hemen zoragarria da ekainera arte. Ekaina edo uztailetik aurrera asko berotzen du. Udan ez nuke aholkatuko hona etortzea, itsaso ondoan egonda ere. Udan hor hobeto gaude. Azken urteotan, gainera, bero handiagoa egiten ari da. Alziran egon ginenean, ez dago itsasertzean, eta hangoak uda heltzeko beldurrez zeuden, oso gaizki pasatzen dutelako. Azken urteetan geroz eta bero handiagoa dute. Beraz, uda hor pasako dugu, gero berriz hona itzuliko gara. Gainerakoan, entretenituta bizi gara hemen. Eguna konturatzerako joaten zaigu.

15.000 izokin askatu ditu Foru Aldundiak Orian eta Urumean

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako haztegian jaiotako 15.000 izokin askatu zituzten aurreko astean.

Xabier Arruti, Lurralde Oreka Berdeko diputatua izokinak askatzen. FORU ALDUNDIA

Industrializazioaren eraginez kutsatutako urek Gipuzkoako ibaietatik desagerrarazi zuen izokin arrunta. Aldiz, "azken hogeita hamar urteotan egindako lanaren ondorioz, gaur egun, Gipuzkoako ibaiek espezie horretako aleak dituzte, eta urtero itsasoaren 100 ale inguru sartzen dira gure ibaietara ugaltzeko".

Hala, Foru Aldunditik aditzera eman dutenez, "ekainean eta uztailean izokin handiak sartzen dira (negu anitzekoak ere esaten zaie hauei, negu bat baino gehiago igaro baitute itsasoan), aurten 27 izokin sartu dira Urumean eta 20 Orian bi hilabete horietan. Kopuru horri ibaietan azarotik abendura bitartean sartzen diren izokin txikiagoak gehituko zaizkio, hilabete horietan ugaltzen baita espeziea".

Espeziearen birpopulatze naturala

Foru Aldundiak abian duen egitasmoaren dinamika da "izokin basatiak arrantzatzea ibaian, foru erakundeak dituen bi harrapatze guneetan eta, ondoren, ale horiek haztegira eramatea espeziea ugaltzeko. Sei hilabeteko hazte prozesuaren ondoren, markatu egiten dira, ondoren Urumea eta Oria ibaien arroetako erreketan askatzen dira. Izokinak markatuz, itsasora irten ondoren jatorrizko lekura itzultzen diren espezie aleen kopurua kontrolatzen da".

Dinamika honen ondorioz, "arrain haztegian hazitako aleen %30 gure ibaietara itzultzen da", gainerakoa %70 "jatorri basatikoa" da. “Horrek esan nahi du gure ibaietan espeziearen birpopulatze naturala egitate bat dela", nabarmendu dutenez, “ibaiak eta haien arroak garbitzeko eta hobetzeko azken urteetan egindako lanari esker”.





Plazan Bazan 12/13. orrialdeetako soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bikote bat gara, etxe bila. Hilabeteka edo ahal bada denbora luzeagorako alokatu nahiko genuke. Mantentze lanak, zein jardineritza edo animaliak zaintzeko prest. Urgentzia daukagu. 624040689 edo +380985359777 whatsapez hitz egiteko.

San Esteban kalean 31m^2 lokal bat alokairuan. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajean egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Goizetan umea eskolara eramateko zaintzaile bila nabil. Harremanetarako: 648247078

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude.670654272.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurpildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea . Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 11	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 12	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 13	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 14	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 15	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Asteartea, 16	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 17	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 18	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 19	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 20	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 21	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

"Eskerrak eman nahi dizkiot guraso talde honi, jaietan ume zein helduekin Kolore Festan egindako lanarengatik eta izandako alaitasunagatik. Mila-mila esker!". Maria Jesus Etxeberriak bidalitako agurra.

Zorion-agurrak

Posta elektronikoa
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.
Etor zaitez gure bulegora bestela, edo telefonoz deitu: 943 360 321.

HILDAKOAK

Hugo Armando Gonzaga
Uztailaren 2an hil zen.

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:
943 360 321 edo *erredakzioa@noaua.eus*
▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 12

USURBIL 'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroa

Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa ikastaroa, Josu Osaren eskutik. Izen-ematea: aurrez Alkartasuna Kooperatiban edo alkartasuna.eus atarian. Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea.
15:30-18:30 Potxoenean.

USURBIL "Kantu berri bat gara" ikuskizuna

"Kantu berri bat gara" Jon Maiaren ikuskizuna. Sarrera doan. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
22:00etan Dema plazan.

OSTEGUNA 18

AGINAGA NOAUA!-ren 1000. zenbakiaren ospakizuna

NOAUA!-ren 1000. zenbakiaren ospakizuna: ekitaldia.
19:00 Eliza Zaharra Elkargunean.

AGINAGA Maialen Lujanbioren emanaldia

Errezitaldi poetiko-bertso-performatibo-irakurri ikus-entzutekoa. Soila, hutsa, betea. Sarrerak: 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA! Kultur Elkartearen bazkideek 4 eurotan NOAUA!ren egoitzan.
19:30 Eliza Zaharra Elkargunean.

Ostiral honetan Dema plazan arituko da. 22:00etan hasiko da kontzertua.

Jon Maiaren kantaldia Dema plazan

Jon Maiak 'Kantu bat gara' diskoa plazaratu zuen 2021. urtean, letragile modura azken 30 urteotan idatzitako kantuen antologia. Diskoak eta birak arrakasta handia izan zuen eta bide horretan, 'Kantu berri bat gara' liburu-diskoa plazaratu zuen iaz. Lan hau aurkeztuko du ostiral honetan Dema plazan.

Gorka Hermosa (akordeoia), Pello Ramirez (biolontxeloa), Nacho Soto (pianoa, sintetizadoreak) eta Nerea Quinces (perkusioa, ahotsa) musikariekin batera igoko da oholtza gainera. Gonbidatu bereziak ere izango dira Dema plazan eskainiko duen saioan. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da.

'Sagarrondotik sagardora' ikastaroa, Josu Osaren eskutik

"Sagarrondotik sagardora" ikastaroaren saio berri bat egingo da ostiral honetan. Josu Osak fruitu arbolen udako eta begiko txertaketa ikastaroa eskainiko du arratsaldeko 15:30etik aurrera Potxoenean. Aurretik eman behar da izena alkartasuna.eus web orrialdean edo Alkartasuna kooperatiban bertan.

KzGuneko ikastaroak

Uztailak 17-30, 16:00-18:00
"Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPekin".
• Informazio gehiago: 943 023 684

Floxbinen itzulera

Luzaroan oholtzetatik kanpo egon ondoren, bueltan da Usurbilgo metal taldea. Azken urteotan, hainbat abesti zintzilikatu ditu Floxbin taldeak. 2021ean, esaterako, "Suge begi" eta "Raus von hier" izeneko kantak zintzilikatu zituen Youtuben duten kanalean

Uztailaren 20an Sutegiko tranpaldora itzuliko direla iragarri dute. Arratsaldeko 20:00etan hasiko den kontzerturako sarrera doakoa izango da.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox. altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak · dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen
943 360 321

ARATZ
zabaleta anaiak
1989tik

·eguneko menua · karta ·pintxoak ·bokatak· plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

JON MAIA

KANTU BERRI BAT GARA

USURBIL
UZTAILAK 12
22:00
DEMA PLAZAN

Usurbilgo Udala BIDEAN

OSASUN GIDA

eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertensioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

elikadura ohiturak zure neurria aldatzen laguntzen dizugu!

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL

MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta eskuzko terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa

MABIOK

Alperro Buru kalea 1, BsB (20170)
T. 608 671 925 / 943 372 658
Sare sozialak: mabiok_fisioterapia
Webgunea: mabiokfisioterapia.com

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzen egokitzapena.

Osakidetzarekin hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

Fisioterapia
Pilates terapeutikoa
Osteopatia
Psikologia
Haurdunaldia
Zoru pelbikoa

943 53 92 66
623 46 26 58

irati.ibargoien@gmail.com
Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170
@ irati_ibargoien_fisioterapia
www.iratibargoien.com

USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO, URRUTIKO ETA GERTUKO BIGARREN LENTE PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Bizi-Sena

Neuroenergetika terapiak nervio sistema orekan jartzea laguntzen du,lasaitasuna lortuz gure buirmuñean eta gorputzean

Karolina Lekuona
674 804 913

www.bizisena.es
info@bizisena.es
Santuenea 26 3ª Eskubi (Usurbil)

·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopatikoak
·Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 P.E.Z.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO 747 486 835 publizitatea@noaua.eus